



Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko 17 arau (2)

ÁLEX FRUTOS

13/03/2022

LA VANGUARDIA

Bizikletaz ibiltzeak baditu bere berezitasunak. Txirrindulariek jakin behar dute zirkulazio-kodea eta, gainera, gehien eragiten dieten arauak. Hau da, herri edo hirietako kaleetan edo/eta herri bateko hirigunetik ateratzen direnean errepideetan.

Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko arau nagusiak zein diren argi izateko, 17 arau garrantzitsuenak ikusiko ditugu. (*Aste honetan beste sei arau bidaltzen ditugu. Hurrengo astean azkenekoak aurkeztuko ditugu*).

Lehenengo oinezkoak

Bai oinezkoentzako pasabide batean, bai beste bide batera sartzeko edozein egoeratan, eta oinezkoentzako bideak badaude, txirrindulariak paso eman beharko dio. Lehenengo, oinezkoentzat izango dira.

Pasatzeko lehentasuna

Bizikleta-errei batetik, txirrindularientzako pasabide batetik edo behar bezala seinaleztatutako bazterbide batetik zirkulatzean, txirrindulariek lehentasuna dute ibilgailu motordunen gainetik igarotzeko.



Maniobrak seinaleen bidez komunikatzea

Bizikletan, maniobra jakin batzuk seinalatu behar dira, hala nola, bideetan sartzea, biratzea, noranzkoa eta erreia aldatzea. Seinaleak eskuineko besoarekin egin daitezke, sorbaldaren parean horizontalki zabalduta, edo ezkerrekoarekin, angeluan tolestuta.

Zirkulazioaren hasiera

Martxan jarri aurretik, txirrindulariak begiratu egin behar du zein bidetara eramango den, inguruan beste ibilgailurik ez dabilela egiaztatu behar du, edo hain urrun daudela, ibiltzeari ekiteko eta maniobra seinalezatzeko arriskurik ez dagoela.

Seinaleak errespetatzea

Txirrindulariek beste edozein gidarik bezala zaindu behar dituzte zirkulazio-seinale guztiak eta semaforoak.



Taldeak biribilguneetan

Elkartuta ibiltzen den talde bateko txirrindulari guztiek lehentasuna dute biribilguneetan, gainerako elkarguneetan bezala, lehenengo txirrindularia bertan sartu denean.